

Argentina: bioerregaien laborategia irakiten

Argentinan Cristina Fernandez presidenteak eta nekazaritzako greba antolatu zuten erakundeak treguan daude eta negoziatzen ari dira asteotan. Gatazka Argentinako arazoa da, baina baita ere bioerregaiei lotutako nekazaritza industrialak XXI. mendean sortuko dituen beste askoren aurrerakin.

ARGENTINA BLOKATURIK EGON DA hamasei egunez, martxoan. Cristina Fernandez gobernu berriak nekazaritzan zerga berriak ezarr dizkielako haserre, laborariek bideak itxi dituzte bostehun puntu baino gehiagotan. Janariak ahitu dira hirietan. Beharrik oinarritzkoenak asetzeko estuasunak izan dira. Grebaren aldeko eta kontrako manifestazioak antolatu dituzte. Bi asteoko blokeoaren ondotik, hilabeteko barealdia hitzartu dute Fernandezek eta nekazarien liderrek, eta egunotan negoziaketan aritu behar dute.

Delako *Paro agropecuario* honek Argentinako mila kontraesan azaleratu ditu, eta Europatik ez da erraz ulertzen zehazki zer den jazotzen ari dena. Badago Buenos Aires hiriburu europartuaren eta gainerako argentinarren arteko arteko etena. Hiriaren eta baserriaren arteko tirabira zaharra ere azaldu da. Protestan gehien bultzatu dutenak indar eskuindarrak izan dira, lurjabe handiak, eta horiei aurre egitera beren buruak ezkerrekotzat dituztenak atera dira.

Konplexua dena are gehiago nahasteko, laborantza industrialeko enpresari aberatsen alboan borrokatu dira baserritar txiki ugari ere. Aldiz, hauek salatzen zuten greba lehertzeraz bidalitako asko *aparato* justizialistan enplegatutako jendeak zirela. Analista batzuek azpimarratu dute Cristina Fernandez de Kirchnerren trebeziarik eza, berez

gizartean berdintasuna handitzeko pentsatuta zeuden neurriak inori galdetu gabe eta harrokeriaz martxan jarri nahi izateagatik.

Horiek eta askoz osagai gehiago dauzka asteotan Argentinan egosten den eltzekariak, bertatik kontatzen zailak eta urrundik ulertzen zailagoak. Baina gainera, Argentinakoa ageri zaigu XXI. mende hasiera honetako gai nagusien laborategi moduan. Nekazaritza industrialak fite korritu du bide luzea herrialde honetan, eta emaitzak bere osotasunean hasi da erakusten, batzuen urrezko irabaziak bezala askoren miseriarik beltzenak.

Nekazaritzak Argentinan egin duen aldaketa Juan Jose Funes-ek esplikatu du *Socialismo o Barbarie* aldizkarian, “Cambios productivos y concentración agraria. Las consecuencias de la sojización”. Alegia, azken hamabost urteotan eraiki den “oro-soja” laborantza sistema ezagutu beharra dagoela ezer ulertzekotan.

Argentina beti izan da nekazaritzan munduko potentzia nagusietakoa. Laboreetan, aziendatan, esnetan. 1950-60ko hamarkadetan ahulaldian ibili bazen ere, 1970etik aurrera mekanizazioari esker loratu zen berriro. Aldiz, 1980. urterako oso nabarmena zen lurraren agortzea leku askotan, eta hari uzta kentzeak urtetik urtera ongarri kimiko gehiago eskatzen zuen.

“Shigow” izeneko batek dauka ipinita argazki bitxi bezain adierazgarri hau Interneten: Argentinan soja-soro handi bat produktu kimikoz fumigatzen ari den hegazkinaren hegala erakusten du. Nekazaritza industrialak dago urteotan Argentinak bizi duen loraldiaren oinarrian. Herrialdeko soroen ia hiru laurdenetan soja lantzen da, eta sojaren hamarretik bederatzia transgenikoak dira. Argentinako baso eta txaradi zabalak erauzi eta alor bihurturik, luberriak bezala etxalde txikiei alokatutakoak korporazio handiek eta inbertsio funtsek kudeatzen dituzte. Dena mekanizatu eta eskulan oso gutxi behar dute. Monsanto-renak dira haziak –urtero derrigor konpainiari erosi beharrekoak– eta Monsanto-renak erabili beharreko pozoi kimikoak. Nekazari askok hirira alde egin du, eta geratu diren potoiek beren familiekin iraun behar dute pozoia arnastuz.

1990etik aurrera, aho biko iraultza gertatuko da hemengo soroetan. Alde batetik, “zuzenean ereitea”, lurra gogodatu gabe, horrela zorua gutxiago higatu dadin. Bestetik, bioteknologiak sortutako hazi transgenikoak.

Harrigarria da genetikoki eraldatutako laboreek hamar urtean nola estali duten herrialde hau. 1996an erein ziren lehenengoak, sojak hain zuzen, eta hamar urteren buruan labore guztien %70 dira transgenikoak. Ez dira Funes eta aldizkari ezker-tiar bat hori dioten bakarrak, Instituto Nacional de Tecnología Agropecuaria erakunde publikoak berretsi du txosten ofizialean.

Dena erosi du Monsanto

Batzuek diote Argentinako soroen %50 dela eta besteek %60, sojak ereindakoa. Izugarritzko zifra, edozein gisaz. Eromen honen sustraia datzate petrolioaren krisian eta “behi eroen” gaitzaren ondorioetan. Batak bioerregaiak jarri ditu modan, eta besteak animalien hondakinak egosita egindako pentsuen debekua. Sojazeleek bietan enbido jo eta irabazi.

2007an 1,5 milioi tona soja-olio ekoiztu zituen Argentinak. Koipe honetan munduko indar nagusietakoa da, Brasil eta AEBekin batera. Olio sortzeko 49 fabrika handi dauzka, 10 gehiago ari da eraikitzen eta beste 18 eraikitze proiektuak daude, tartean



Repsol multinazionalarena. Santa Fe probintzia da honetan lider.

Soja aleei olioia kendu ondoren, gainera, abereen janaritarako erabiltzen diren *pelletak* geratzen dira. Ia 20 milioi tona soja-opil saldu dira Txinara, Europara eta Indiara. Bi aho asetzen ditu, beraz, sojak: petrolioa hainbeste garestitu denean bioerregaia errentagarri bihurtu dira, eta gero eta haragi gehiago jaten duen gizadiak aziendak gizendu beharra dauka.

Soja-olde izugarri honek azkar eragin ditu desorekak Argentinako baserri munduan. Garia eta beste laboreak gero eta gutxiago ereiten dira, horien prezioak handituz. Abeltzaintza krisian sartu da. Esnegintzak hondoa jodu du, baratze gintzak ere bai. Hargia, esnea, barazkiak, fruituak, labo-

reak... denetik gutxiago eta denak garestiago. Ulertzekoa da orain argentinaren artean elikadura burujabetza asko aipatzen den asmoa izatea.

Monolaboreak ekarri du nekazartza prozesua barrutik lehertzea. Lehen zeuden latifundioak handitu egin dira. Ordainetan, baserri txiki asko saldu: 26 hektarea inguruko 600.000 etxalde eduki omen zituen noizbait Argentinak, eta gaur 130.000 besterik ez. Horieta askok, gainera, *pool de siembra* direlakoei alokatzen dizkiete alorrak. Sistema honetan funtzionatzen dutenak hiriburuko eta atzerriko kapitalak dira, urteroko operazioak egiten dituztenak: alokatutako soroetan soja erein, landu, bildu eta atzerrirako saldu. Operazioen buru, teknikariak kanpotik ekarriak.

Lurgintza arras mekanizatu honek eskulan gutxi behar du, eta horretan Argentinan ari diren 1.300.000 peoietatik milioi bat "beltzean" ari dira beharrean, herrialdeko jorنالیک murriztenak kobratuz. Peoi hauek eta soja industriaren sareak harrapatuta bizi diren etxalde txikitako nekazariak protagonismo berezia izan dute joan den martxoko liskarretan. Ezkerreko idazle askok nabarmendu dute jendeok multinazionalen gatibu bizi direla itolarrian.

Rebenes de Monsanto idatzi da behin eta berriro Argentinako gune ezkertiarretan. Oraindik *corralitoa*—herrialdeko banku guztietako diru guztiak blokatu egotea ekarri zuen finantz krisia— ahaztu ezin duten argentinarrak ugarri ohartzen hasi dira zein den urteotako miraria erne duen ongaria. Monsanto multinazionalaren Roundup pozoia soja ez beste bizi guztia erretzen du eta pozoia jasateko asma-tutako soja transgenikoa da uza eman dezakeen bakarra. Hortik abiatuta, lurra kontzentratu dira, alorren errentak garestitu, gainerako laboreak gutxitu, nekazariak hirietara bidali, bertan geratu direnen osasuna arriskuan jarri etengabeko fumigazioengatik, eta ia oihan guztiak galduta Argentinak mendeetan nozitu duen hondamendi ekologikoa ekarri.

Gobernuak zergak igo dituelarik, Pampatik Chacora inoko eremuak sutu dira. Irtenbidea? Zaila. Nekazariak bakarrik ez, Monsanto Argentina osoa baitauka bahituta. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik
onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik
zabalena
bataurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
bataurrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 524

K A L I T A T E A